

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

3322

AGINDUA, 2022ko uztailaren 12koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez izendatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako epaimahaikideak.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez deialdia egin zen enplegua finkatzeko prozesu berezietarako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesu hauetarako: Laguntzako Langileen Talde Profesionala, Administrari Laguntzaileen Kidegoko Administrari Laguntzaileen Eskala, Administrarien Kidegoko Administrarien Eskala eta Kidego Teknikoko Erizaintzako Eskala.

Hautaketa-prozesu horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko maiatzaren 18ko Aginduan jasotakoaren arabera egingo dira, haren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Oinarri orokorrek 18. apartatuan ezartzen dutenez, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez izendatuko dira enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako epaimahaikideak, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horrez gain, hau xedatzen du: kidego eta eskala bakoitzean, enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako epaimahaiak pertsona berberak osatuko dituzte.

Horrenbestez, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 6.1.i) artikuluan xedatzen denaren arabera, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Epaimahaikideak izendatzea enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesu hauetarako: Laguntzako Langileen Talde Profesionala, Administrari Laguntzaileen Kidegoko Administrari Laguntzaileen Eskala, Administrarien Kidegoko Administrarien Eskala eta Kidego Teknikoko Erizaintzako Eskala. Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez egin zen prozesu horietarako deialdia. Agindu honen eranskinean dago jasota epaimahaien osaera.

Izendatutako pertsonak aipatutako epaimahaietako kide izango dira, salbu eta ezgaitasun, ezintasun edo legezko bateraezintasunen bat, abstentzio-kausaren bat edo ezinbesteko kausaren bat ikusten badu Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak.

Bigarren artikulua.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik, betiere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 12a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.

2022ko uztailaren 22a, ostirala

ERANSKINA

1.– Laguntzako Langileen Talde Profesionalean enplegua finkatzeko prozesu bereziko eta enplegua finkatzeko salbuespeneko prozesuko epaimahaia.

Epaimahaiburua	Titularra	Fulgencio Aledo Amorós
	Ordezkoa	María Begoña Galdeano Ruiz de Larramendi
Lehenengo bokala	Titularra	Imanol Uriguen Garaizabal
	Ordezkoa	Ricardo Heras Martín
Bigarren bokala	Titularra	Miguel Ángel Gorriti Bontigui
	Ordezkoa	Francisco Asís Eizmendi Olaberria
Hirugarren bokala	Titularra	Lide Murua Markaida
	Ordezkoa	Resurrección Abasolo García
Idazkaria	Titularra	Nerea Barrenetxea Errasti
	Ordezkoa	Marta Iglesias Barrio

2.– Administrari Laguntzaileen Kidegoko Administrari Laguntzaileen Eskalan eta Administrarien Kidegoko Administrarien Eskalan enplegua finkatzeko prozesu berezietako eta enplegua finkatzeko salbuespeneko prozesuetako epaimahaia.

Epaimahaiburua	Titularra	Fulgencio Aledo Amorós
	Ordezkoa	María Begoña Galdeano Ruiz de Larramendi
Lehenengo bokala	Titularra	Marta Iglesias Barrio
	Ordezkoa	Ricardo Heras Martín
Bigarren bokala	Titularra	Miguel Ángel Gorriti Bontigui
	Ordezkoa	Francisco Asís Eizmendi Olaberria
Hirugarren bokala	Titularra	Lide Murua Markaida
	Ordezkoa	Resurrección Abasolo García
Idazkaria	Titularra	Nerea Barrenetxea Errasti
	Ordezkoa	María Isabel Monleón Fernández

3.– Kidego Teknikoko Erizaintzako Eskalan enplegua finkatzeko prozesu bereziko eta enplegua finkatzeko salbuespeneko prozesuko epaimahaia.

Epaimahaiburua	Titularra	Concepción Castells Carrillo
	Ordezkoa	María Elena Suso Pérez de Arenaza
Lehenengo bokala	Titularra	Teresa Muskilda García de Eulate García de Eulate
	Ordezkoa	Ignacio Odriozola García
Bigarren bokala	Titularra	María de las Nieves Rodríguez-Sierra Huguet
	Ordezkoa	Puy Urbiola Salinas
Hirugarren bokala	Titularra	Patxi Martínez de Albeniz Casi
	Ordezkoa	Marta de la Cruz Ortega
Idazkaria	Titularra	María Angeles Heras Burzako
	Ordezkoa	María Pilar Alcorta Iruretagoyena